

Luigi Pirandello, *Sei pertsonaia autore bila*.
Alberdania/Elkar (Literatura Unibertsala, 108. zenbakia)
Itzultzailea: Josu Zabaleta

Antzoki baten agertokian, Pirandelloren lan baterako entsaiatzen ari diren bitartean, autorerik gabeko sei pertsonaia azaltzen dira, norbaitek bizia eman diezaien; hots, haien drama antzez dezan. Idazle italiarrak benetan asmatu zituen pertsonaiok bere obra baterako, baina baita gero baztertu ere, eta hortxe aurkitu zuen abiapuntua obra honek Kontua da, autoreak bertan behera utzi ondoren, pertsonaiak ez direla ezer, haien bizi bakarra agertokian baino ez baitago. Horrela, entsaiatzen ari diren antzezle eta zuzendariaren nahasmenaren erdian, pertsonaia horiek –hiruk batez ere–, beraien alegiazko bizitzako drama familiarra kontatzen diete, eta zuzendaria konbentzitzea lortzen dute, istorio hori behin gutxienez taulartzeko, bizia izan dezaten horrela.

Baina antzezleek bizitza ematen dietenean pertsonaiei, hauek ez dira konforme gelditzen, beraien pertsonaia izate horretan dagoen drama ez dutelako ondo islatuta ikusten. Baina kontua da berez drama hori gertatu ez dela inoiz gertatu, autoreak ez duelako beraien istorioa amaitu, pertsonaiak eta beraien dramaren zirriborroa baino ez du asmatu, baina azken forma eman gabe, forma horrek ez lukeelako egiazko bizitza islatuko; ezinezkoa baita hori: ez baitugu esaterik gu nolakoak garen, hainbat baikara bakarraren barruan, guk geure burua ikusten dugun bezalakoak, bai, baina baita besteek ikusten gaituzten bezalakoak ere. Oso desberdinak, beraz. Zein da gure izaera orduan? Bakarra?, guztiak batera?, bat ere ez? Gauzak horrela, nola uler dezakegu elkar, hitzak abstrakzio hutsak badira, bakoitzak bere modura ulertzen dituenak, bizitzako gertakizunak bezala? Aita pertsonaiak dioenez, “Nola ulertu behar dugu elkar, esaten ditudan gauzei nire baitan duten balioa jartzen badiet; eta entzuten duenak, berriz, hitz horiek, berak bere barnean duen munduan duten balioaren arabera ulertzen baditu? Elkar ulertzen dugula iruditzen zaigu; eta inoiz ez dugu elkar ulertzen!”.

Beraz, bizitza ezin da inola ere antzeztu, bizitza aldakorra delako, antzemanazina, askotarikoa; eta pertsonaiek haien bertsio bakarra, mugatua, aldaezina baino ezin dute eman; eta hori ez da bizitza, errepresentazio, fikzio, azal hutsa baino. Errealitatearen eta itxuraren arteko borroka batean bizi gara. Eta, hain zuzen, hitz horietxekin bukatzen da ikuskizuna: itxura, errealitatea... Horixe baita komedia honen muina, egiaren eta fikzioaren arteko harremana, baina ez soilik sorkuntza literario edo teatralaren ikuspuntutik begiratuta, baizik eta maila existentzialera ekarrita. Antza denez, bere emaztea burutik nahastu eta gero sortu zitzaizkion planteamendu filosofikook antzerkigile siziliarrari, eta antzerkiaren barruko antzerkiak baliatu zen obra honetan filosofia hori agerrarazteko.

Planteamendu experimentalista eta iraultzailea zen antzerkiaren munduan Pirandellok 1921ean lehen aldiz taularatu zen obra honetan egin zuena, XX. mendeko antzerki modernoari ateak zabaldu zizkiona. Eta ospe handia ekarri zion mundu osoan, 1934an Nobel Saria irabazi arteraino. Italian, aldiz, hasieran obra honek ez zuen oso harrera onik eduki, eta ulertua ere ez zen izan; antzerki ikusleak eta kritikariak baino dexente aurrerago zegoen Pirandello, eta bere planteamenduak defenditu behar izan zituen; horrexegatik, 1925eko edizioan sarrera bat ipini zion bere obrari, Josu Zabaletak euskara zoragarrian egindako itzulpen honetan bukaeran irakur daitekeena. Eta beharbada, zati hauxe da obra honek ikusle/irakurlearengan uzten duen miresmena nolabait artistikoki kaltetzen duena, antzezlanak premia espiritual sakonago bati erantzuten diola eransten duenean, esanez bera izaera filosofikoa duen idazlea dela, balio unibertsala bilatzen duena; eta, gero, pertsonaiei buruzko iruzkinetan esaten duenean antzezlan baten irudiek halako zentzu unibertsal bat izan behar dutela, ez baita aski gizon edo emakume irudi bat irudikatzea; horrela, bere hitzetan,

haietako hiru –aita, ugazalaba eta semea– izpiritu bezala daude osaturik; ama natura bezala; mutikoa eta neskatoa, berriz, “presentzia” bezala. Bitxia da Pirandellok sarrera honetan esatea gorroto zuela arte sinbolikoa, noiz eta ere bere hitzetan halako balio sinbolikoa ematen dionean bere lanari.

Koldo Biguri